

# MOTZEAN

**B**urlatako etxegabetze bat gelditu du Iruñerriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak. Genero-indarkeriaren biktima den emakume bat eta haren bost seme-alabak, horietatik hiru 18 urtez beherakoak, etxetik bota nahi izan dituzte, baina ehun bat lagunek eragotzi dute. Kaleratze data atzeratu dute.

**J**oseba eta Eñaut Alvarez aita-semeak 2023ko San Sebastian bezperan "Etxera" zioen oihal handi bat teilatutik alderik alde jartzen saiatu ziren. Bertan poliziekin izandako tira-biraren ondorioz eskatzen zieten espetxe zigorretik libre geratu dira, eta isun bat ordaindu beharko dute.

**E**usko Jaurlaritzak isunak kendu dizkie ertzainei euskaraz hitz egiteagatik zigortuak izan ziren Donostiako herritarrei, Manex Ralla eta Amaia Abendañori.

**U**rriaren 7ra atzeratu dute Korrikan migratzaileei muga zeharkatzen laguntzea egotzi dietenen epaiketa.

**E**zkeltzu inguruan (Zizurkil) parke eolikoa eraikitzeko proiektua bertan behera utzi du Green Capital enpresak. Espainiako Aire Segurtasuneko Agentziaren irizpen teknikoak erabakigarriak izan dira.

**S**istema duala abian da ikasturte honetan Hego Euskal Herriko Lanbide Heziketan, eta eredugarri saldu duten arren, arazotsua izaten ari da hainbat zentrotan: ikasle guztiek derrigorrezko praktikak egin ditzaten enpresak bilatzen "gorriak pasatzen ari dira" irakasleak, salatu dutenez.

## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com

